



Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko uztailaren 8an egindako saioan, eta 2009ko uztailaren 21eko eta irailaren 22ko saioetan egindako akats zuzenketetan, akordio hau onartu du, besteak beste, dagokion akta onartzeko saioan gerta daitekeenaren mende

2008KO LAN-ESKAITZA PUBLIKOA.

2008ko ekitaldirako udal honetako Lan-eskaintza publikoa onartzeko aginduzko espedientea izapidetu da.

Ekitaldi horretarako aurrekontua 2008ko otsailaren 5ean egindako batzarrean onartu zen behin betiko.

Plaza horiek betetzeko beharra dago, baita haiek eskaintzeko betebeharra ere, araudi hauetan oinarrituta: Administrazio publikoetako langileen estatutuaren 70. artikulua, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen bidez onartua; Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua; apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91. artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; Toki Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateginaren 128. artikulua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta UDALHITZ akordioko 102. artikulua.

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskumena Alkatearen 2007ko uztailaren 12ko Dekretuaren bidez esleitu zitzaionez (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 157. zenbakia, abuztuaren 10ekoa),

ERABAKI DU

1. Onartzea udal honetako langileen 2008rako LAN-ESKAITZA PUBLIKOA. Eskainitako plazak eta haien ezaugarriak erabaki honetako I. eranskinean jaso dira.
2. Plaza horiek betetzeko hautaketa-prozesuen OINARRI OROKORRAK onartzea, dagozkien hautaketa-prozesuen edo barne-sustapenekoenen deialdia egitean plaza bakoitzari dagozkion berriazko oinarriak onartzeari kalte egin gabe. Oinarri horiek erabaki honen II. eranskinean jaso dira.

I. ERANSKINA

Pasaiako Udaleko lan-eskaintza publikoa osatzen duten plazak.
2008. urtea.

Txanda irekia

Eskainitako plazekin batera, Udalak, indarrean dagoen Lanpostuen Zerrendaren arabera, eskainitako plaza bakoitzaren etorkizuneko jabeai atxikiko dizkien lanpostuen ezaugarriak aipatzen dira. Lanpostuak izangaiek informazio gehiago izan dezaten soilik adierazten dira, eta ez du haietara atxikitze inolako eskubiderik emango; izan ere, udalek autoantolaketaarako dituzten ahalmenak direla eta, funtzionarioei kategoria horretan hutsik dagoen edozein lanpostu esleitzeko aukera dago.

Txanda irekia.

- ✓ Administrazio orokorreko teknikari plaza bat. A1 sailkapen-taldea.
Lanpostua: Antolaketa eta giza baliabideetako teknikaria. Hizkuntza-eskakizuna: 4.a, derrigortasun-data gainditua duena.
- ✓ Udaltzain bat. Administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala. C1 sailkapen-taldea.
Lanpostua: Udaltzaina. Hizkuntza-eskakizuna: 2.a, derrigortasun-data gainditua duena.



- ✓ Erdi-mailako teknikari plaza bat. Administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala. A2 sailkapen-taldea.
Lanpostua: Berdintasuneko teknikaria. Hizkuntza-eskakizuna: 4.a, derrigortasun-data gainditua duena.
- ✓ Erdi-mailako teknikari plaza bat. Administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala. A2 sailkapen-taldea.
Lanpostua: Itzultzaile-hizkuntza trebatzailea. Hizkuntza-eskakizuna: 4.a, derrigortasun-data gainditua duena.
- ✓ Teknikari laguntzaile plaza bat. Administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala. C1 sailkapen-taldea.
Lanpostua: Liburuzaina. Hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data gainditua duena.
Dedikazioa: %40a

Barne-sustapena

- ✓ Udaltzaingoko Lehen Agente plaza bat. Administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala. C1 sailkapen-taldea.
Lanpostua: Lehen Agentea. Hizkuntza-eskakizuna: 2a.
- ✓ Bi ofizial lanpostu. Administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala. C2 sailkapen-taldea.
Lanpostuak: Lehen mailako ofiziala, iturgina. Hizkuntza-eskakizuna: 2.a, derrigortasun-data gainditua duena.

II. ERANSKINA

Pasaiako Udalean karrerako funtzionario moduan sartzeko oinarri orokorrak.

2008ko LEP.

Lehenengoa. Deialdiaren helburua

- 1.1. Deialdi honen helburua da deialdian aipatu diren eta karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden plazak betetzea, kasu bakoitzerako oinarri orokor hauei jarraituko dieten berariazko oinarrietan ezarritako sistemaren bidez, txanda irekian edo barne-sustapenekoan.
- 1.2. Deitutako plazen kopurua baino izangai gehiagok gainditzen badituzte ariketa teoriko-praktikoak, zerrenda hori etorkizunean erabili ahal izango da, antzeko lanpostuetarako langile ez-iraunkorren beharrak betetzeko, betiere lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna betetzen bada.
- 1.3. Barne-sustapeneko txandan hutsik geratzen diren lanpostuak (izangaiek dagozkien probak gainditzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez izanagatik) txanda irekiko eskaintzan sartutako dira.
- 1.4. Titularrek barne-sustapenaren bidez plaza berri bat lortu izanagatik hutsik geratzen diren plazak lan-eskaintza publikoan sartuko dira, 2008ko LEPeko prozesuaren azken deialdian.

Bigarrena. Dagokion legedia

Oinarri orokor hauek legez ezarritakoaren mende daude, eta, bereziki, hauen mende: Administrazio publikoetako langileen estatutua, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen bidez onartua; Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea; apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAEko administrazio



publikoetan euskararen erabilera arautzen duena; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki araubideari dagokionez, legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duena; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta lanbide-sustapenerako arategi orokorra onartzen duena; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarriko arauak eta gutxieneko programak onartzen dituena, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Hirugarrena. Izangaien baldintzak.

Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, eskatu zaizkien baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte.

3.1. Nazionalitatea.

Europako Batasuneko kide diren estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo, Europako Batasunak egindako eta Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, baita herritartasuna duenaren ondorengoek eta haien ezkontideek ere —betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude—, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

3.2. Adina.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago hamasei (16) urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako adina ez gainditzea, Udaltzaingoko agenteen plazetarako xedatua salbu.

3.3. Titulazioa eta hizkuntza-eskakizuna.

Eskatutako titulazio akademiko ofiziala izatea, edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea.

Halaber, plaza bakoitzari dagozkien berariazko baldintzetan jaso daitezkeen beste baldintza batzuk betetzea, bi hizkuntza koofizialen ezagutza-maila barne.

3.4. Gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

Eskainitako plazarari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

3.5. Auzibide diziplinario bidez zerbitzutik baztertuta ez egotea, Administrazio Publikoari edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren bidez desgaituta erabatekoan edo berezian ez aurkitzea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaituta edo horren pareko egoera batean ez aurkitzea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplina-zehapenik edo horren parekorik jaso ez izatea.

Laugarrena. Eskabideak aurkeztea.



4.1. Dagokion hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek hala zehaztu beharko dute udaleko web-gunean (www.pasaia.net) eta Udaleko erregistro orokorrean eskura izango diren eskabide-orri ofizialaren bidez.

4.2. Eskaerak 20 egun naturaleko epean aurkeztuko dira, deialdiaren azken iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita; azken iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa izango da.

4.3. Eskabideak Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako moduetan.

Eskabideak posta-bulegoetan aurkezten badira, epea amaitu baino lehenago egin beharko da, gutun-azal irekian, postetxeko funtzionarioak behar bezala data jarri eta zigilua eman diezaien. Horrela eta ez bestela ulertuko da postetxean aurkeztutako egunean sartu zirela eskabideak.

4.4. Lehiaketa edo oposizioan onartua izateko eskaerek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Izangaiek adierazi behar dute hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako.
- b) Lehiaketa-fasean balioetsi beharreko meritua zehaztu behar dira. Eskabidean adierazi ez diren meritua ez dira balioetsiko, ezta bere garaian egiaztatu ez direnak ere, berariazko oinarrietan ezarritakoari jarraikiz.
- c) Azkenik, oposizioaldiko probak EAeko bi hizkuntza ofizialetako zeinetan egin nahi diren adierazi beharko da.

Bosgarrena. Ezgaitasunen bat duten pertsonak.

5.1. Ezgaitasuna %33koa edo handiagoa duten izangaiek eskabidean jakinarazi beharko dute egoera hori, eta hautaketa-prozesuan izan ditzaketen berariazko beharren berri eman beharko dute. Eskaerarekin batera, ezgaitasun-maila zehazteko organo eskudunak egindako medikuaren txosten teknikoa aurkeztu beharko da.

5.2. Epaimahaiak hautaketa-probak egiteko beharrezko diren egokitzapenak (denbora eta baliabideak) egingo ditu, baldin eta egokitzapen horiek hautaketa-proben edukia aldatzen ez badute, edo lanpostuan jarduteko beharrezko gaitasunaren kaltetan ez badoaz. Denbora-egokitzapenak ez dira automatikoki egingo, baizik eta ezintasunak egin beharreko probarekin erlazio zuzena duen kasuetan soilik. Ondorio horietarako, epaimahaiak kontuan izango du "denbora, ahozko proba edota idatzizkoa urritasunen eta ezgaitasun-mailaren arabera egokitzeko irizpide orokorrak" izeneko baremoa, Lehendakaritza Ministerioaren ekainaren 9ko PRE/1822/2006 Aginduaren eranskinean jasotakoan.

Seigarrena. Onartuen eta baztertuen zerrenda

6.1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean, alkateak onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala dagokionean, baztertzeko arrazoien berri emango du. Udalaren web-gunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Pasaia Udaleko iragarki-taulan argitaratzeko agindua ere emango du, eta zehatuko da iragarkia argitaratu ondoren hamar egun baliorduneko epea izango dela erreklamazioak egiteko eta, halakorik bada, eskabideetan egindako akatsak zuzentzeko.

6.2. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu edo haiek ebatzitakoan, alkateak onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartu eta hura (edo behin-behineko zerrendan izandako aldaketak)



Udalaren web-gunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Pasaiako Udaleko iragarki-taulan argitaratzeko aginduko du, baztertutakoek zer helegite jar ditzaketen adieraziz.

Behin-behineko zerrenda behin betikoa izango da ez bada erreklamaziorik aurkezten.

6.3. Zerrenda argitaratzean, ariketen hasieraren lekua eta ordua zehaztuko dira.

Zazpigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

7.1. Prozesu bakoitza baloratzeko eratzten den epaimahai kalifikatzailearen burua Alkatea izango da, eta beste bost kide izango ditu gutxienez, besteak beste, HAEEn proposamenez izendatutako kide bat eta Langileen batzordeak izendatutako beste bat.

Horiekin batera, eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko soilik, HAEEn beste kide bat egongo da epaimahaian.

7.2. Halaber, izaera teknikoa eta berezitasun-printzipioa errespetatu behar dira eta kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza-eremuari dagokion titulazioa izan behar dute, eta kide guztiek deitutako plazetara iristeko eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademikoa.

7.3. Aholkulariak hartzerik izango du Epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saiotarako. Haien espezialitate teknikoetan laguntzen baino ez dira arituko aholkulari horiek.

7.4. Epaimahaia ezingo da eratu, eta ezingo du jardun, epaimahaikideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezkari, bertan ez badira; gainera, ezinbestekoa da mahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

7.5. Epaimahaiak arau hauek aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak argituko ditu, eta aurreikusita ez dauden kasuetan zer egin behar den erabakiko du.

7.6. Deialdi bakoitzarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoren izenen zerrenda. Salbuespenez, epaimahaiko kideren bat ezin bada une horretan izendatu, haren izendapena onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera argitaratuko da.

7.7. 30/92 Legearen 28. artikuluan xedatutako kasuetan, epaimahaikideek ezin izango dute parte hartu, eta izangaiek errefusatu egin ahal izango dituzte.

7.8. Epaimahaiak edo bertako edozein kidek prozesuaren edozein aldiri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du hautaketa-prozesuko edozein unetan.

7.9. Epaimahaiak lehiakideren batek deialdian ezarritako betebeharretakoren bat edo batzuk betetzen ez dituela jakiten badu hautaketa-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, izangaia egindako okerren nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere alde aurretik interesatuari entzun ondoren.

Prozedura berari jarraituko zaio izangairen batek ariketetan mekanismoak erabiltzen dituela edo iruzurrezko jarduerak egiten dituela ikusten bada.

7.10. Epaimahaiburuak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu bermatzeko Epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren oposizioaldiko idatzizko probak izangaien izenak jakin gabe zuzenduko direla.

7.11. Epaimahaiaren jardueren eta argitalpenen alegazioak idatziz aurkeztuko dira Udaleko Erregistro orokorrean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako moduetan. Bigarren aukera horren alde



egiten denean, alegazioa aurkeztu duenak alegazioa aurkeztu izanaren berri eman behar dio Udalari, epaimahaiko idazkariari zuzendutako mezu elektronikoko edo fax baten bidez.

Zortzigarrena. Ariketen nondik norakoak.

8.1. Gai-zerrenda deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8.2. Lehiakide guztiek batera egiterik ez duten ariketetan, honela jokatu da: epaimahaiak eratzeko zozketa publikoaren bidez ezarritako letratik hasten den deitura (lehenengoa) duten izangaiak hasiko dira lehenik, eta ordenamendu alfabetikoari jarraituko zaio ondoren.

8.3. Deialdi bakarra egingo zaie lehiakideei ariketako bakoitzerako, eta bertaraten ez direnak bazterturik geratuko dira.

8.4. Haien nortasuna ziurtatzen duen dokumentu publikoa eraman beharko dute izangaiak proba saioetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango diete epaimahaikideek ziurtagiri hori.

8.5. Lehen proba non, noiz eta zer ordutan egin udaleko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, proba hori egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

Derrigorrezko ariketa edo proba bat erabat bukatzen denetik hurrengoa hasi arte 5 laneguneko gutxienezko epeak igaro beharko du.

8.6. Hurrengo proba-saioetara dei egiteko iragarkiak udalaren web-gunean eta udaleko iragarki taulan jarriko dira, gutxienez ere hurrengo saioa baino 5 lanegun lehenago. Dena den, hautaketa-probetarako deialdi-egutegiak argitaratu ahal izango dituzte epaimahaiak.

8.7. Azterketara onartuen behin betiko zerrendan ageri diren izangaiak ez ezik, baztertutako jo baina erabaki gabeko gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dutela egiaztatzen dutenak ere aurkeztu ahal dira.

8.8. Izaera publikoa ez dute probetara, udalean ordezkari duteen alderdi politikoetako eta sindikatu etako ordezkari bana bertaratu ahal izango dira, gonbidatu moduan.

Bederatzigarrena. Hautaketa-prozesua.

9.1. Hautaketa-sistema zehatza eta oposizioaldiaren proben xehetasuna, nahiz lehiaketa-fasean kontuan izango diren merituak, aukeratutako sistema oposizio-lehiaketa bada, dagozkien berriazko oinarrietan zehaztuko dira.

9.2. Oposizioaldian beti izango da gutxienez izaera praktikoko derrigorrezko ariketa bat.

9.3. Kalifikazio-sistemari dagokionez, 0 eta 10 arteko notak edo puntuak erabiliko dira, eta epaimahaiko kide bakoitzak objektiboki izangai bakoitzari dagokiola uste duena aukeratuko du. Gero, banakako kalifikazioen batez bestekoa lortuko da.

Ariketa bat ez bada 0tik 10era puntuatzen, nahikoa da puntuazioa kopuru horrekiko modu proportzionalan lortzea.

9.4. Berriazko oinarrietan adieraziko da ahozko ariketarik egingo den, eta idatzizko azterketak epaimahaiaren aurrean irakurri behar diren.

Ahozko probak grabatu egingo dira, izangaiak erreklamazioa aurkeztuz gero, erkatu ahal izateko. Aurkezpena amaitu ondoren, epaimahaiak izangaiekin hitz egin ahal izango du aurkeztutako gaiei buruz.



9.5. Lehiaketaldia ez da baztertzaileria izango, eta ez da kontuan hartuko oposizioaldiko probak gainditzeko.

9.6. Oposizio-lehiaketa sistema aukeratzen denean, administrazio publikoek bete beharreko efikazia- eta eraginkortasun-printzipioei jarrikiz, oposizioaldiko proba gehienak lehiaketaren aurretik egingo dira, oposizioaldia gainditzen ez duten pertsonen merituak balioesteko alferrikako lana ekiditeko. Dena den, merituak oposizioako azken proba egin aurretik balioetsi eta argitaratuko dira.

9.7. Merituen balorazioak proportzionatua izan behar du. Aktan atal bakoitzean lortutako puntuazioa jasoko da hasteko, eta puntuazio orokorra ondoren.

9.8. Lehiaketa-fasean lor daitekeen puntuazioak ezin du oposizioaldian lor daitekeena baino % 45 handiagoa izan.

Hamargarrena. Emaitzak argitaratzea eta gaindituen zerrenda.

10.1. Proba bakoitzeko emaitzak argitaratu eta gero, gutxienez 3 laneguneko epea eskainiko da azterketak berraztertzeko; gero, berriz, 2 laneguneko epea, erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiko buruari zuzenduko zaizkio, eta idatziz aurkeztuko dira Udaleko Erregistro orokorrean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako moduetan. Bigarren aukera horren alde egiten denean, erreklamazioa aurkeztu duenak erreklamazioa aurkeztu izanaren berri eman behar dio Udalari, epaimahaiko idazkariari zuzendutako mezu elektronikoko edo fax baten bidez.

10.2. Hautaketa-faseak amaitu ondoren, gaindituen zerrenda osatu behar da, puntuazio-ordenaren arabera.

Zerrenda udalaren web-gunean, iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamaikagarrena. Gaitasun-baldintzak egiaztatzea.

11.1. Dena gainditu duten izangaiak hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintzak (hirugarren oinarrian jasotakoak) betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

Horretarako, 20 egun naturaleko epea izango dute onartuen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Hamabigarrena. Izendapen-proposamena.

12.1. Emaitzak ikusita, epaimahaiak prozesu hori gainditutako izangaiak karrerako funtzionario izendatzea proposatuko du.

Izendapenak ez dira eskainitako plazak baino gehiago izango.

Azken puntuazioetan berdinketarik gertatzen bada, oposizioaldian punturik gehien lortu duen izangaia proposatuko da; hor ere berdinketak berean jarraitzen badu, proba praktikoan (edo teoriko-praktikoan) eta teorikoan lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan, hurrenkera horretan. Hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, udalerraren ezagutzari buruzko borondatezko proba bat egingo da.

12.2. Proposatutako izangaiak, adierazitako epean, agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu –justifikatu beharreko halabeharrezko kasuetan izan ezik–, ezin izango da funtzionario izendatu; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak eman izanagatik erantzukizunak eskatzea.



Kasu horretan, organo eskumendunak beste izendapen-proposamen bat egingo du, hautaketa-prozesua gaindituta hornitu beharreko plazen behin betiko kopuruan sartzen direnen alde, betiere azken puntuazioaren ordenari jarraikiz.

Aukeratutako izangairen batek izendatu edo lanpostuaz jabetu aurretik lanpostuari uko egiten badio, deialdia egin duen organoak epaimahaiari eskatu ahal izango dio proposatuei jarraitzen dieten izangaien zerrenda osagarria, karrerako funtzionario izendatzeko.

12.3. Karrerako funtzionario izendatu aurretik, plaza bakoitzerako berariazko oinarrietan praktikaldia gainditzeko derrigortasuna ezarri ahal izango da.

Hamahirugarrena. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.

13.1. Hautaketa-prozesua amaituta, gainditu duten izangaiak praktiketako edo karrerako funtzionario izendatuko dira, berariazko oinarrietan zehaztu bezala, proposamena egin denetik gehienez ere hilabeteko epean. Izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web-gunean eta iragarki-taulan argitaratuko da, eta pertsonalki jakinaraziko zaie izendatuei.

13.2. Izendatutako pertsonak lanpostu zehatz batez jabetu beharko du, lanpostu horrekin bateraezina den beste lanposturik ez duela idatziz adierazi ondoren. Lanpostuaz jabetzeko 3 laneguneko epea izango du gehienez, izendapena jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Hamalagarrena. Plazak betetzea.

14.1. Lanpostuen zerrenda lanpostua betetzeko baldintza jakin bat ezarrita duten lanpostuak inola ere ezingo dira bete baldintza hori betetzen duela egiaztatu ez duen izangai batekin.

14.2. Eskainitako plazek lanpostu bat baino gehiago eskaintzen dutenean, sartu berri diren funtzionarioen eskaeren arabera egingo da lanpostuaren esleipena. Lanpostu baterako eskaera bat baino gehiago dagoenean, hautaketa-probetan puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.

Lanpostuaren norakoek behin betiko izaera izango dute eta lehiaketa bitartez eskuratutakoen baliokide izango dira ondorio guztietarako.

Hamabosgarrena. Bitarteko funtzionarioak izendatzeko zerrendak.

15.1. Deialdiek kategoria desberdinetan aldi baterako langile-beharrak estaltzeko zerrendak osatuko dituzte. Zerrenda horiek ordura arte indarrean daudenak ordeztuko dituzte, eta udalak ezarritako araudiaren arabera kudeatuko dira.

Hamaseigarrena. Aurkaratzeak

16.1. Oinarri hauek berraztertze-errekurtsoaren bidez aurkaratu ahal izango dira, eta errekurtsu hori Tokiko Gobernu Batzarrean aurkeztu beharko da, argitaratzen denetik hilabeteko epean. Errekurtsua ez bada hilabeteko epean ebazten, ezetsizat hartuko da, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, data horretatik hasi eta sei hilabeteko epean. Halaber, oinarri hauek zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztuz aurkaratu ahal izango dira argitaratu eta bi hilabeteko epean.

16.2. Ondorengo deialdiaren, hautaketa-prozesuko ebazpenen nahiz Balorazio Batzordearen jardunak eragindako administrazio-egintza guztien aurka errekurtsuak aurkeztu ahal izango dira, 30/1992 Legeak ezarritako eran eta kasuetan. Hala ere, administrazio-egintza bakoitza argitaratu edota jakinaraztean, interesdunei helegitea jartzeko, erreklamazioa aurkezteko edo gora jotzeko epeen berri emango zaie, baita zer organotara jo behar dute ere.